



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko martxoaren 25a

43. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Lantaldea, Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aztertu eta eztabaidatzekoa. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak onetsia (2. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da tinko berma dezan egun dagoen Nafarroako Ospitaleguneko garbiketa zerbitzu publikoari eutsiko zaiola. Osasun Batzordeak onetsia (3. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da beharrezkoak diren neurriak zehaztu eta gara ditzan "Monte Alto", "Montes de Cierzo" eta Cintruenigoko ehiza-barrutietan fauna babestua pozoitzeagatiko kalteak gainditzeko, ukitutako barrutietako jarduna eten dezan eta pozoiauren aurkako kudeaketa-plan bat taxutu dezan. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordeak onetsia (4. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, Osasun arreta jarraitu eta larrialdikoari buruzko otsailaren 14ko 2/2013 Foru Legearen artikulua bakarrik betetzeari buruzkoa, Bakartxo Ruiz Jaso andreak egina (5. or.).

—Galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak asmorik ote duen, Parlamentuaren agindua betetz, batzorde negoziatzaile bat eratzeke, Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoa berritze aldera, Juan Carlos Longás García jaunak egina (6. or.).

—Galdera, jakitekoa Nafarroan LOMCE 2014-2015 ikasturtean ezarriko ote den, Marisa de Simón Caballero andreak egina (6. or.).

—Galdera, Elektrizitate-sektoreari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legeari buruzkoa, zeinak ezartzen baitu minden biodigestioko planten elektrizitate-salmentaren ordainsari ekonomikoa ehuneko 40 murriz daitekeela, M.^a Carmen Ochoa Canela andreak egina (7. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Lan-taldea, Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aztertu eta eztabaidatzekoa.

LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE BATZORDEAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 114. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin "lantalde bat sortzeko erabakia, Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aztertu eta eztabaidatzekoa." Erabaki hori Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak onetsi zuen, 2014ko martxoaren 20an egindako bilkuran. Hona testua:

1. Onestea lantalde bat eratzeko proposamena, Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aztertu eta eztabaidatzekoa.

2. Adieraztea parlamentu-taldeek legegintzarako hautaturiko kideen eta ordezkarien berri izan duela:

Javier Caballero Martínez jauna (UPN)

Roberto Jiménez Alli jauna (SN)

Víctor Rubio Martínez jauna (Bildu)

Patxi Zabaleta Zabaleta jauna (Aralar-NaBai)

Eloy Villanueva Cruz jauna (PPN).

Txema Mauleón Echeverría jauna (I-E)

3. Adieraztea lantaldea gaur eratu dela.

4. Zehaztea lantaldeak martxoaren 20ko 18:00etan ekinen diola bere zereginari eta astebeteko epean bukatuko duela.

Iruñean, 2014ko martxoaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da tinko berma dezan egun dagoen Nafarroako Ospitaleguneko garbiketa zerbitzu publikoari eutsiko zaiola.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2014ko martxoaren 20an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da tinko berma dezan egun dagoen Nafarroako Ospitaleguneko garbiketa zerbitzu publikoari eutsiko zaiola." Erabakia heldu da Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Ezkerreko-Ezkerreko parlamentu-taldeek aurkeztu zuten mozio batetik, zeina 2014ko martxoaren 7ko 34. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eman baitzen argitara.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du tinko berma dezan egun dagoen Nafarroako Ospitaleguneko garbiketa zerbitzu publikoari eutsiko zaiola.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du garbiketa zerbitzu publiko lanpostu guztiei euts diezaien.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du oraindik inauguratu ez diren C Pabiloiaren eta Larrialdietako eraikinaren garbiketarako kontratua bukatzen denean, Administrazio Publikoaren menpeko langileek egin dituzaten aipatu eraikin edo eremuen garbiketalanak.

4. Nafarroako Parlamentuak onartezintzat jotzen du garbiketa zerbitzu publikoan behin-behineko lanpostuen tasa % 85ekoa izatea, eta Nafarroako Gobernua premiatzen du enplegu eskaintza publiko bat egin dezan, lanpostuak eta langileen egoera egonkortze aldera."

Iruñean, 2014ko martxoaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren neurriak zehaztu eta gara ditzan "Monte Alto", "Montes de Cierzo" eta Cintruenigoko ehiza-barrutietan fauna babestua pozoitzeagatik kalteak gainditzeko, ukitutako barrutietako jarduna eten dezan eta pozoiauren aurkako kudeaketa-plan bat taxutu dezan.

LANDA GARAPENENKO, INGURUMENENKO ETA TOKI ADMINISTRAZIOKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administraziooko Batzordeak, 2014ko martxoaren 21ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da tinko berma dezan egun dagoen Nafarroako Ospitaleguneko garbiketa zerbitzu publikoari eutsiko zaiola." Erabakia heldu da Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu zuen mozio batetik, zeina 2014ko otsailaren 21eko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eman baitzen argitara.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berehala zehaztu eta gara ditzan beharrezkoak diren neurriak, "Monte Alto", "Montes de Cierzo" eta Cintruenigoko ehiza-barrutietako naturguneetako fauna babestua bere onera ekartzeko eta pozoiak hondatutako ordena biologikoa leheneratzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ehiza-jarduera bertan behera utz dadin inplikaturako barrutietan, salbu eta basurdea eta untxia bezalako ehiza-espezieek nekazaritza-laboreetan eragindako kalteak kontrolatzeko lanak, harik eta pozoiak zelaian jarri izanak eragindako arriskua prebenitzeko baldintzak eduki arte.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren prozedurak gara ditzan, kasuko udalek barrutien zaintza kendu ahal izateko pozoitzearekin ustez zerikusia duten pertsoneri edo kolektiboari.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sei hilabeteko epean taxutu dezan pozoiauren aurkako kudeaketa plan bat, zaintza areagotzeko eta hobetzeko berariazko neurriak jasoko dituenan".

Iruñean, 2014ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, Osasun arreta jarraitu eta larrialdikoari buruzko otsailaren 14ko 2/2013 Foru Legearen artikulua bakarrik betetzeari buruzkoa.**BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko martxoaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Osasun arreta jarraitu eta larrialdikoari buruzko otsailaren 14ko 2/2013 Foru Legearen artikulua bakarrik betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko martxoaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Osasuneko kontseilari Marta Vera

Janín andreaki, Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Iragan martxoaren 17an, Mahaiak eta Eledunen Batzarrak laugarren aldiz gaitzetsi zintuzten, errespeturik ez izateagatik Parlamentuari, Osasun arreta jarraitu eta larrialdikoari buruzko otsailaren 14ko 2/2013 Foru Legea ohartuki urratzeagatik.

Adierazpen instituzional horretan, Parlamentuak erreibindikatu zuen eskubidea daukala Osasun Departamentuak Parlamentura ekarri beharreko plana eztabaidatu eta bozkatzeko. Plan hori, bestalde, 2008ko akordio sindikal bat berrikustera mugatu da, eta ez da egin landa eremuetako beharriari buruzko egiazko azterlanik, eremu horietako toki entitateen eta profesionalen parte-hartzea behar zuena.

Osasuneko kontseilariak ba al du asmorik neurriren bat hartzeko, 2/2013 Foru Legearen artikulua bakarrik betetze aldera, nahiz eta legeak ezarritako epetik kanpo izan?

Iruñean, 2014ko martxoaren 20an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak asmorik ote duen, Parlamentuaren agindua betetz, batzorde negoziatzaile bat eratzeko, Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoa berritze aldera.

JUAN CARLOS LONGÁS GARCÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko martxoaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Carlos Longás García jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak asmorik ote duen, Parlamentuaren agindua betetz, batzorde negoziatzaile bat eratzeko, Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoa berritze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko martxoaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Juan Carlos Longás García,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak lehendakari Barcina andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoaren negoziatioari buruzko mozio bat onetsi zuen 2013ko azaroaren 28an. Mozioan, Nafarroako Gobernuak premiatzen zen, besteak beste, "parlamentu-taldek izendaturiko kideez osatutako batzorde negoziatzaile bat era dezan, Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoa berritzeko negoziatioak gauzatze aldera".

Nafarroako Gobernuak ba al du Parlamentuaren agindua betetzeko asmorik? Hala baldin bada, noiz eta nola beteko du? Nafarroako Gobernuak modurik taxutuko al du Nafarroako Parlamentua aldiro eta behar bezala informaturik egon dadin negoziatioen bilakaeraz, aipatu mozioaren 2. puntuan agindu bezala?

Iruñean, 2014ko martxoaren 20an

Foru parlamentaria: Juan Carlos Longás García

Galdera, jakitekoa Nafarroan LOMCE 2014-2015 ikasturtean ezarriko ote den.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko martxoaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa de Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa Nafarroan LOMCE 2014-2015 ikasturtean ezarriko ote den.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko martxoaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa de Simón Caballero, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Hezkuntza-sistema hobetzeko Lege Organikoa heldu den ikasturtean sartuko da indarrean, Estatu Gobernuak aginduta.

Nafarroako Gobernuak 2014-2015 ikasturtean ezarriko al du LOMCE Nafarroan?

Baiezkoan, nola eta noiz argitaratuko dira Nafarroarako curriculumaren dekretuak? Testu

liburuen doakotasun programa nola eta noiz egokituko da egoera berrira, Testu liburua finantzatzeari buruzko martxoaren 25eko 6/2008 Foru Legearekin bat?

Iruñean, 2014ko martxoaren 24an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, Elektrizitate-sektoreari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legeari buruzkoa, zeinak ezartzen baitu minden biodigestioko planten elektrizitate-salmentaren ordainsari ekonomikoa ehuneko 40 murriz daitekeela.

M.^a CARMEN OCHOA CANELA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko martxoaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea M.^a Carmen Ochoa Canela andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Elektrizitate-sektoreari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legeari buruzkoa, zeinak ezartzen baitu minden biodigestioko planten elektrizitate-salmentaren ordainsari ekonomikoa ehuneko 40 murriz daitekeela.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko martxoaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko parlamentari Carmen Ochoa Canelak, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, heldu den martxoaren 27ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaioten:

Elektrizitate-sektoreari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legeak ezartzen du minden biodigestioko planten elektrizitate-salmentaren ordainsari ekonomikoa ehuneko 40 murriz daitekeela.

Proposamen hori alegazio fasean dago.

Hori dela-eta, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du parlamentu-talde honek:

Nafarroako Gobernuak neurriren bat hartuko al du jarduera mantentzeko? Lehen sektorearendako eta ingurumenarendako laguntzak lehentasuna izanen al du, ala, aitzitik, PPren Gobernuaren erabakiak onartuko al dira?

Iruñean, 2014ko martxoaren 24an

Foru parlamentaria: Carmen Ochoa Canela

